



### **1996ko urtarrilaren 23an**

- 3.- Ur deposituaren zaingoa eta ustiakuntza Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren eskuetan uzteko hitzarmenaren onarpena.
  - 4.- Gizarte zerbitzuetako oinarriko sareari buruz Diputazioak aurkezturiko hitzarmen zirriborroari alegazioak aurkezteko akordioa.
  - 5.- Gizarte larrialdietarako laguntza eskarietako 96/1, zenbakidun zerrendaren onarpena.
- Nissan Patrola erosteko onarpena.

### **1996ko otsailaren 27an**

- 3.- 1996ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorraren onarpena.
  - 4.- Idiazabalgo Arau Subsidiarioen Lurzoru Urbanizaezinari dagokion Hirigintz-Erregimeneko berrikustapenaren Aurrerakina erakustaldi publikoan jartzeko erabakia.
  - 5.- Goatse Areako urbanizazio lanak enkante ireki bidez kontratatzeko Baldintza Ekonomiko-Administratibo Pleguaren onarpena.
  - 6.- GOIEKI, S.A.-ko Administrazio Kontseilurako Udal ordezkarien izendapena.
  - 7.- Gizarte larrialdietarako laguntza eskarietako 96/2, zenbakidun zerrendaren onarpena.
    - \* Coprisak aurkezturiko ordainagiriaren onarpena. Eziolatza industrialdean asfaltatze lanak.
    - \*. Construcciones Pedro Iparragirre, S.L.-k aurkezturiko ordainagiriaren onarpena: Goiko Kalbario inguruko oinezkoen bide bat hormigonatzea.
    - \*. Construcciones Pedro Iparragirre, S.L.-k aurkezturiko ordainagiriaren onarpena: Igerilekuan egindako lanarena.
    - \*. Manuel Jimenez arkitektoak aurkezturiko ordainagiriaren onarpena: 1995eko aholkularitza lanetakoa.
- Jubilatuen egoitzako sukaldea berritzeko obrak hasi direla eta aurrikusitakoaren gain lehenengo aldaketa eman dela: sukaldea handitu eta kalderan gela txikitu.
- Ampo enpresak sortzen dituen otsak direla eta, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailak bidalitako azken txostenaren berri eman eta honen kopia Ampo berari nola bidali zaion berri ematen da.

Kale Nagusia, lehengo N-1-aren jabetzaren eskualdaketa proposamena.

### **1996ko martxoaren 26an**

- 3.-Biztanle Errolda berritze lanetarako langile bat kontratzeko oinarrien onarpena.
  - 4.- Diputazioa eta Udalaren arteko Lankidetzta Hitzarmena Gizarte Zerbitzuak Finkatzekori buruzkoaren onarpena.
  - 5.- Gizarte larrialdietarako laguntza eskarietako 96/3, zenbakidun zerrendaren onarpena.
    - \* Igerilekuan umeen putzua handitik banantzeko lana Delta, S.A.ri esleitzea.
    - \* Txuloko-Iturri etxe atzeko bidea konpontzeko laguntza ukatzea.
    - \* Frontoi zaharreko frontisa garbitze lanetako, Sebastian Mugica Apaolaza pintoreak aurkeztu duen ordainagiriaren onarpena.
    - \* Igerilekuan, San Migel Plazan eta Umeen parkean loragintzako zenbait lan egiteko Goroldik aurkezturiko eskaintzaren onarpena.
- \* Igerilekua udara begira prestatzeko egiten ari diren jestioen berri ematen da.
  - \*Elkarriri diru laguntza ematea.



- \* Gobernu Zibilera Udal honek hartzen dituen erabakien berri ez ematea.
- \* Aberri egunean ikurriña jartzeko erabakia.

### **1996ko maiatzaren 7an**

- 3.- Errota Sektoreko Urbanizazio Proiektu Eraldatuko Lehen faseko lanen esleipena.
  - 4.- Goatse Sektoreko Urbanizazioko Obren Proiektuko lanen esleipena.
  - 5.- Igarondo Igerilekuko 1996 denboraldirako zerbitzu prestaketa izendatzeko baldintza pleguaren onarpena.
  - 8.- 1996ko Lan Sustapen Programaren onarpena.
- \*Udaletxean sute eta lapurketen aurkako sistema ezartzeko lana Babesa Suzai, S.A.ri esleitzea.
  - \* Kultur Asteko egitarauaren berri aurreko Batzarrean eman zen eta orain aurrekontuaren berri ematen da. Aurrekontua 850.000 pezetatakoa da.
  - \* Julia Fernandez Masso langileren ordainketa nibela igotzea.
  - \* Biztanle errolda berria egiteko deia zabaldu eta azkenik aukeratua izan dena Amaia Barriola herritarra izan den berri ematen da.
  - \* Proyecto Hombre-ri diru laguntza.

### **1996ko ekainaren 25an**

- 3.- Txomenarena parkeko lorazaintza lanen esleipena.
  - 6.- GOIEKI, S.A.ko 1995 ekitaldiko Memoria, Balantzea eta Irabaz eta Galeren kontuak eta emaitzaren aplikazioari dagokion onarpena.
  - 7.- GUARDÍ GAIN, S.A.ko 1995 ekitaldiko Memoria, Balantzea eta Irabaz eta Galeren kontuak eta emaitzaren aplikazioari dagokion onarpena.
  - 8.- 1996ko maiatzaren 1ari dagokion Biztanle Erroldaren Berrikutzaren behin behineko zenbaki laburpenaren onarpena.
- \*\*\* San Juan bezperako jaiaren balorazioa egiten da.
  - \*\*\* Udal 96 kanpainako zenbait berri eta xehetasun ematen da.
  - \*\*\* Uztailerako egin den egitarauaren berri ematen da.
  - \*\*\* Liburutegirako Argia aldizkariaren harpidetza egitea proposatzen da eta Batzarrak ahobatez onartzen du proposamena.
  - \*\*\* Bake Epaitegirako haltzarien erosketa.
  - \* Gipuzkoako Ur Kontsorzioko azken bilarakoa.
  - \* Arimasagastiko kolektorearen eraiketarekin sortutako arazo eta diputazioko arduradunekin egindako bilera.
  - \* Txomenarenako parkearen inaugurazioa uztailaren 13rako egitea pentsatzen da.

### **1996ko uztailaren 23an**

- 3.-Korta baserriko bidearen eraberritze lanen esleipen proposamena.
- 4.-Egileor baserriko bidearen eraberritze lanen esleipen proposamena
- 5.- Jaso Equipos de obras, S.A.-rekin, enpresa inguruan instalazio industrialak haundiagotzeko hirigintzazko hitzarmena onartzeko proposamena.
- 8.- Euskadiko Foru eta Toki Administrazioetako langileriaren 1996rako lan baldintzen onarpen proposamena.

# **Idiazabalgo Udala**

( GIPUZKOA )



9.- Gizarte larrialdietarako laguntza eskarietako 96/4. zenbakidun zerrendaren onarpen proposamena.

10.- Txomenarenako Parkeko inaugurazio egunean azaldutako pintadei buruz, EAk aurkezturiko mozioa\* Gorri baserriko bidea partxeatzeko hiru kamiokara brea jartzea Udalak. Onartu egiten da proposamena.

\* Goiherriko bertsolari eskolari 40.000 pezetako diru laguntza.

\* Argia-ko urtekarian horri laurdeneko iragarkia ezartzea.

\* Gazteketxa eta Aranzadik antolaturiko auzolandegia.

\* Euskara ikasten ari direnentzat diru laguntzak\* D.B.H.-ko Loinazpe Institutoko behin behineko Organu Gorenaren eskariaren onarpena.

\* Kultur Etxeko goiko galerian ate berria jartzea.

\* Sasieta Mankomunitateak Aurrekontuak onartzeko egindako bileraren berri ematen da. Batetik mankomunitateko aurrekontuaren zenbait xehetasun ematen da (Udalaren ekarpena aurten 6.844.000 pezetatakoa izango da) eta bestetik Gipuzkoako inzeradorari eta Arrasatekoa istera dohanez bailarako zaborrak Sasieta eta Azpeitira botatzeko gaiei buruzko ere zenbait informazio ematen da.

\* Etxez etxeko zerbitzuaren gora beheren berri ematen da: onuradun bat hil da; Lehen onartutako zerbitzu bati onuradunak behar eza adierazi duela; Oporraldiak direla eta ordezkate lanen antolamendua; Zerbitzua emateko egin zen langile zerrenda eta baremoa gaurkotzeko dira.

\* Hitzaldi batzuk antolatzeko asmoa agertzen da.

\* Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak, "Udal ekonomiaren kudeaketan hobekuntzak ezartzeko laguntza Proiektua" deituriko lana burutzeko Herrialdeko hamar Udalei partaide izan dezaten proposamena luzatu du, Udal horietako bat Idiazabal izatea suertatu delarik. Esperientzi horren berri emateko bilera bat egin da Diputazioan eta bertan lan honen edukina azaldu zen. Lana udazkenean hasi eta datorren urteko udaberria bitarte gauzatuko litzateke. Gaia azterturik, lan hori beste batzuen artean Idiazabalen burutzeko proposamenari, Batzarraren oneritzia ematea erabakitzen da

\* Herritar batzuek herri lurretan txakurrak entrenatzeko toki eskatzen dute. Gaia azterturik ez dago adostasunik eta lehendabizi toki zehatza eskatzaileekin ikustekotan gelditzen da, kontuan izan beharko delarik baita ere ganaduzaleen iritzia.

\* Alkateak LAB sindikatuak kaleratu duen informazio horri bat irakurtzen du Bellota Herramientasko arazoan instituzioen jokabideari alusioa eginaz eta bere protesta azalduaz alusio horrengatik eta eskatzen du aktan azaldu dadila Udalaren inziatibaz, Udal honetan bi bilera egin direla langileekin proposata Urbanistikoa aztertzeko. Baita ere azkeneko bileran eskeini zen Udal hau Goieki eta Jaurlaritzarekin gestioak egitera langileek nahi bazuten.

\* Pilar Enea eta Hirugarren adikoentzat zerbait egiteko asmoari buruz, azken informazioak eman eta Oñatin ikustiako esperientziaren berri ematen du. Halaber, Tafalla inguruko herri bateko esperentzia ikusteko asmoa eta irailean debate bat irekitzeko asmoaren berri ematen du.

\* Ezioatzako B parzelan beste hiru opabeloi eraikitze baimena ematera doala, Baimen horrekin B partzela ere osatua gelditzen da.

\* Errotako Birzatiketa Egitasmoa egin duen Eloy Diaz Luri abokatuarekin, lan horren kostuari buruzko akordio batetara iritxi dela. Kostua azkenik 1.350.000+bez.

\* Naturgas enpresak herri gasifikatzeko kontzesioa eskatu du eta enpresako ordezkariarekin eta Industria sailarekin egindako bileren berri ematen da.

\* Diputazioko Nekazaritza saileko arduradunekin gestio batzuk egiten ari dira Goatseko bidea konpontzeko asmoarekin.



### **1996ko abuztuaren 29an**

- 3.- Arau Subsidiarioen Lurzoru Urbanizaezinari dagokion Hirigintz-Erregimeneko berrikustapenerako irizpide eta helburuen onarpena.
- 4.- Arau Subsidiarioetako 8. Area (Jaso)ri dagokion Arauen aldaketarako erredakzio lanen esleipena.
- 5.- Sociedad de Gas de Euskadi, S.A.k Idiazabalen gas naturala banatzeko egin duen administrazio-emakidaren eskariari buruzko erabakia.
- 8.- 1995ko Aurrekontuari dagokion Kontu Orokorraren espedientearen onarpena.
  - \* San Migel Jaiak Ursuaranen. Jaietako egitaraua eta aurrekontua aurkezten da. Aurrekontua 545.000 pezetatakoa da eta oso osorik diruz laguntzea erabakitzen da ahobatez..
  - \* San Inazio auzoko jaiak. Aurten ez badira jaiak antolatu ere, egun horretan Donostia tabernakoek trikitixa jarri zuten lehen Albitxun egioten zen erara. Jai hori antolatzeagatik 50.000 pezetatako laguntza ematea erabakitzen da.

### **1996ko urriaren 1an**

- 3.- 1997ko ekitaldirako zerga propio, tasa eta prezio publikoen Ordenantza Erregulatzaitetako zenbait karga tasa, kuota eta prezioen aldaketaren onarpena.
- 4- Herriko arratoi suntsiketa zerbitzuaren esleipen proposamena.
- 5.- Gizarte larrialdietarako laguntza eskarietako 96/6 zenbakidun zerrendaren onarpen proposamena.
  - \*\*\* Gizarte Laguntzailearen soldata nibela igotzea.
  - \* Helduen alfabetatze ihardunaldiak aurten Beasainen emango diren berri ematen da. Orain arte Idiazabalen bertan eman ohi izan dira baina aurten talde txikia bildu dela eta Beasainen emango da.
  - \* Jubilatuen egoitza edo residentzia Pilar-enean kokatzeko asmoak direla eta San Martin de Unx-era egindako bisitaldiaren berri ematen da. Bestalde eta gai berdinarekin jarraituz, datorren astean herri batzar bat egingo da Kultur Etxean.
  - \*\*\* Juan Urrestarazu Jn.ak Arimasagasti etxean 6. etxebizitza antolatzeko oneritzia.
  - \*\*\* Enrike Aranburu Jn.ak Goatse baserri inguruan borda berri bat eraikitzeke oneritzia.
  - \*\*\* Kale Magusiko arbola inguruetan babestzaileak jartzea.
  - \*\*\* Pilotalekuko teilatuan elurrari eusteko soporteak jartzea.
  - \*\*\* Pilotalekuko lapurketak direla eta alarma bat jartzeko 3 etxeri eskeintza ekonomikoak eskatu zaie, hauetatik bik aurkeztu dutelarik. Hirugarren eskaintza iristean Batzordearen esku uzten da erabakia hartzea.
  - \*\*\* Errota eta Ezizolatz industrialdetan zabor bilteta kontainerrak jartzea dihoazen berri ematen da.
  - \*\*\* Egunkariak argitaratzen duen urtekarian, urtero bezala, lau moduloko Udalaren laguntzako iragarkia ezartzea proposatzen da. Onartu egiten da proposamena.
  - \*\*\* Kirolegia okupatuta dagoen ordutegiaren eta udazkeneko ihardueren jarraipenaren berri ematen du.

### **1996ko urriaren 29an**

- 3.- Agirien erregistroari buruz, Idiazabalgo Udala eta Gipuzkoako Foru Diputazioaren arteko Lankidetz Hitzarmenaren onarpen proposamena.



4.- Goierrri eskualdean bidaiarien garraio publikoa bultzatzeko konpromezu publiko bat onartzeko proposamena.

5.- Herriko arratoi suntsiketa zerbitzuaren esleipen proposamena.

6.- Gizarte larrialdietarako laguntza eskarietako 96/6 zenbakidun zerrendaren onarpen proposamena.

7.- Ormalatzako pista konpontzeko lanen esleipen proposamena.

\*\*\* Hirugarren Munduarekin lan egiten duten talde eta erakundeei dirulaguntzak: S.O.S. Balkanes erakundearen eskaria.

\* Jubilatuen egoitza edo residentzia Pilar-enean kokatzeko asmoa dela eta Kutur Etxean egindako asanbladaren berri ematen da. Asanblada horretan gai hau landuko duen talde ireki bat osatzea erabaki zen besteak beste. Talde hori laister hasiko da lanean.

\*\*\* Gambos baserri inguruan bi etxe eraikitzeako proiektua.

\*\*\* Albisu Anaiei, Maugizelaeta baserri ondoan ganadua babesteko tejabana eraikitzeako baimena ukatzea.

\* Pilotalekuko lapurketak oztopa nahian alarma jarri dela pilotalekuan. Azkenik Babesa Suzai enpresak jarri du.

\* Sasieta Mankomunitateko azken bileraren berri ematen da. Edukinaren garrantzitsuen:

Gipuzkoa osarako hiru zabortegei bakarrik geldituko direla, bat Sasieta. Horregatik beste eskualde batzuetatik zabortegei honetara ere ekarriko dira zaborrak eta inbertsio latzak egin behariko dira egoera berrira egokitzeko eta zabortegeiaren bizia luzatzeko. Inbertsio berri hoi finantziarioa Diputaziotik eta "bezero berriengandik" etorriko da.

Amezketak orain arte Lapatx-eko zabortegeira botatzen ditu hondakinak eta Sasieta botatzeko eskaria egin du. Batzarrean ez zen egokitzen jo horrelako banakako eskariei aldeko erantzuna ematea zeren lehen aipatu bezala gai honetan Gipuzkoako plangintzako ikuspuntua izatea garrantzitsua da.

\*\*\* Euskaduntzeko bi dirulaguntzak.

\*\*\* Xabier Insausti. Datorren ikasturtean soinketa saiogatik kobratzekoa proposamena.

\*\*\* Guraso Elkarte. Jubilatuen bazkaria antolatzeagatik diru laguntza.

## **1996ko abenduaren 3an**

Etxegarateko Mendatea desdoblatzearen aldeko adierazpena.

## **1996ko abenduaren 17an**

3.- Idiazabalgomendia deituriko 2.034.1 zenbakidun Herri Onurako mendiko egur ustiaketaren enkantea arautuko duen Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Pleguaren onarpena.

4.- 1997ko ekitaldirako GOIMEN erakundera aurkezteko proiektuen onarpena.

5.- Kanposantuko zerbitzua emateko hitzarmenaren berrikustapen eta luzapena.

\*\*\* Tecnomodul, S.L.-rekin, Iñauti Baserri ondoko lur eremu batean instalazio industralak ezartzeko hirigintzako hitzarmena onartzeko proposamena.

\*\*\* Iñauti Baserri ondoko lur eremu baten hirigintzako sailkapena egokitzeko dagokion Arau Subsidiarioen aldaketa lanen esleipena.

\*\*\* Asun Aranburu Mujika And. Aizkoeta Arretsea baserriaren zati batean beste etxebizitza bat egokitzeko eskariari buruzko aldeko irizpena.

\* Goardi industrigunean Guardi-Gain, S.A. egiten ari den gestioen berri ematen da: Lur erosketa eta Plan Parzial berria idazteko.

# ***Idiazabalgo Udala***

( GIPUZKOA )



- \* Futbol zelai berrirako lur erosketarako alternatiba ezberdinen hausnarketa egiten da.
- \*\*\* San Blas jaietako garbiketa zerbitzua kontratatzeko proposamena.
- \*\*\* Sasieta zaborteia handitzeari buruzko hausnarketa.
- \*\*\* Goierritarra aldizkariari dirulaguntza.
- \*\*\* San Blas jaietako egiturau eta aurrekontua aurkezten da.
- \*\*\* Kirol Ekipamendu Area bat sortzeko Idiazabalgo Hiri Antolaketako Arauen 3 zenbakidun Elemendu Aldaketaren behin betiko onarpenaren aurka aurkezturiko Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoan administrazioaren alderdialde gisa ez agertzea.
- \*\*\*Jarrairen eskaria pilotalekuan kontzertua antolatzeko.
- \*\*\* Etxegarateko desdoblamentuaren gaiari buruzko azken informazioa.